

NAIDER BILBON OSPATUTAKO HEZKUNTZA EBALUAZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUAN

Posted on 10/03/2026 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Evaluación Educativa](#), [Evaluar para mejorar](#), [Hezkuntza Ebaluazioa](#), [Hobetzeko ebaluatu](#), [Naider Lantaldea](#)

Jokin Etxebarria, NAIDERen Ekonomia eta Berrikuntza koordinatzaileak, *"Tknika as a Technological Complexity Hub: A Network Evaluation of Technology Domains in Basque VET Tknika"* izeneko posterra aurkeztu du [Hezkuntza Ebaluazioari buruzko Nazioarteko Kongresuan](#), martxoaren 9an eta 10ean Bilboko Euskalduna Jauregian egin den ekitaldian.

Lana **Beatriz Plazarekin** batera garatu da; bera **Euskal Herriko Unibertsitateko** Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakaslea eta egilearen doktorego tesiaren zuzendaria da. Ikerketak **Tknikak** Lanbide Heziketari lotutako domeinu teknologikoen sarean betetzen duen **komplexutasun teknologikoko nodo** gisa duen rola aztertzen du. Sare-analisiaren ikuspegitik abiatuta, azterlanak LHri lotutako eremu teknologiko desberdinen arteko egituraketa eta loturak aztertzen ditu, eta Tknikak ezagutza aplikatuaren sorkuntzan, transferentzian eta hedapenean duen kokapen estrategikoa identifikatzen du.

Hezkuntza Ebaluazioari buruzko Nazioarteko Kongresuak mila profesional, ikertzaile eta irakasletik gora bildu ditu Bilbon, ebaluazioak hezkuntza-sistemak hobetzeko eta ikaskuntzako politika publikoak orientatzeko duen zereginari buruz eztabaidatzeko.



